

2019KO IRAILAREN 4KO BILERAREN AKTA.

Deialdia: Lehenengoa.

Bilera: ohizkoa.

Eguna: 2019.09.04.

Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Dabid Iturria Almandoz jn.

Leire Mitxelena Gamio and.

Beñat Mitxelena Damboriena jn.

Imanol Lukanbio Larretxea jn.

Joseba Pikabea Iribarren jn.

Markel Jorajuria Elizondo jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:


Denak etorri dira.

Idazkaria:

Izaskun Echeverria Larburu and.

Aztergaiak:

- 1.- Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Arantzako Udala eta Osasuna Fundazioaren arteko hitzarmena.
- 3.-Arantzako osasun etxeko obren esleipena.
- 4.-Arantzako 2019ko aurrekontuaren 5. Aldaketa: hasierako onespena.
- 5.-Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketa: behin-betiko onespena.
- 6.-Arantzako ordenantza orokorraren aldaketa: behin-betiko onespena.
- 7.-Pellettikiko egutegia onartzea.
- 8.-Burdinburutze baserrian estalki bat egiteko obra baimen eskaera.
- 9.-Iñaki Mikelarena eta Maribel Tabernaren 5. Poligonoko 277 lursailean obra hondakinak lurperatzeko baimena.



10.-Frontoian eragindako kalteak.

11.-Alkatearen ebazpenak.

12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

Ikusirik 2019ko uztailaren 26an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ARANTZAKO UDALA ETA OSASUNA FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA.

Osasuna fundazioak elkarlan hitzarmen proposamena aurkeztu dio. Hitzarmenaren xedea Arantza Osasuna Fundazioaren Nafarroako futbol eskolaren egoitza ofiziala izatea da. Udalak horretarako 2019/20 denboraldian (urritik maiatzera) kirol instalazioak erabiltzeko baimena emango luke

Guzti hau kontuan izanik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Osasuna Fundazioa eta Arantzako Udalaren arteko hitzarmena sinatzea, Arantza Osasunaren Futbol Eskolaren egoitza izan dadin 2019/20 denboraldian.

2) 2019/20 denboraldian (urritik maiatzera) kirol instalazioak erabiltzeko baimena ematea. 100 €-tako fidantza jarri beharko du Osasuna Fundazioak. Instalazioen erabilera ordutegia zehaztu beharko da.

3) Akordioaren berri ematea Osasuna Fundazioari.


3.-ARANTZAKO OSASUN ETXEKO OBREN ESLEIPENA.

Arantzako Udalak Osasun Kontsultategia berritzeko diru laguntza eskaera egitea erabaki zuen 2019ko otsailaren 4an hartutako akordioaren bidez.

Osasunbideako Zuzendariaren 348/2019 ebazpenak, apirilaren 15ekoak, diru laguntza eman zion, 24.099,72 € hain zuzen ere.

Lanen memoria Beñat Aleman Ollok egina da, 18.441,78 €-tako aurrekontua izango lukeelarik (BEZ kanpo).

Arantzako Udalak gobitak bidali zizkien I.M. IGELTSERITZA S.L., ERLAITZ ERAIKUNTZAK eta GAZMENDI ERAIKUNTZAK enpresei.



I.M. IGELTSERITZA S.L. enpresak bakarrik aurkeztu zuen proposamena, 22.314 €-tan (BEZ barne).

Ondoren proiektuaren memoriak aldaketa izan zuen, aurrekontua ere igo delarik 23.672,50 € (BEZ kanpo).

Ikusirik I.M. ARRISKO S.L. igeltseritza bakarrik aurkeztu zenez, eta obraren kontuaren zenbatekoa kontuan izanik, aurrekontuaren aldaketaren berri eman zitzaion, eta proposamen berria aurkeztu dezan gonbita berria luzatu zaio.

Oraindik erantzunaren zain gaude esleipena egin ahal izateko.

4.-ARANTZAKO 2019KO AURREKONTUAREN 7. ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Arantzako Udalak 2019ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran adostu zuen aho batez Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako udalerriei 500 €-tako diru-laguntza ematea.

Kontuan hartuz 2019ko aurrekontuan ez dela partidarik horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. Artikuluan xedatutakoari jarraikiz,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1)2019ko aurrekontuaren 7. Aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 2)Espedientea Idazkaritza jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azten dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

5.-ARANTZAKO HIRIGINTZAKO ARAUDI OROKORRAREN ALDAKETA: BEHIN-BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2019ko martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketa espedientea onestea, konkretuki 13., 25., 26. eta 29. Artikuluak eta ez urbanizagarria den lurren hirigintzako araudiaren 18. Artikulua ukitzen dituen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu betegina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3 artikulua jarraikiz, espedientea jendaurrean egon da Udalaren Idazkaritzan hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik



Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan da.

Guzti hau ikurik, ADOSTU DUTE:

Behin betikoz onartzea Arantzako eraikuntzen ordenantza orokorraren aldaketa, konkretuki 13., 25., 26. eta 29. artikulua eta ez urbanizagarria den lurren hirigintzako araudiaren 18. artikulua ukitzen dituena.

- 1) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ordenantza honen behin betiko onespena eta ordenantza bertan osorik argitaratzea.
- 2) Nafarroako Gobernuak El ayuntamiento deberá remitir al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo el Plan Parcial o el Plan Especial aprobado definitivamente, junto con los informes emitidos, en un plazo máximo de diez días contados desde dicha aprobación, para su control de acuerdo con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.

6.-ARANTZAKO ERAIKUNTZA ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2019ko martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Arantzako eraikuntzen ordenantza orokorraren aldaketa onestea, konkretuki 18., 19., 52., 54., 55. eta 56. Artikulua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. Artikuluan xedatuari jarraikiz, ordenantza jendaurrean egon da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan da.

Guzti hau ikurik, ADOSTU DUTE:

- 1) Behin betikoz onartzea Arantzako eraikuntzen ordenantza orokorraren aldaketa, konkretuki 18., 19., 52., 54., 55. eta 56. artikulua.
- 2) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ordenantza honen behin betiko onespena eta ordenantza bertan osorik argitaratzea.

7.-PELLETTIKIKO EGUTEGIA.

Ikusirik Pellettikiko egutegia.

Osoko bilkurak, aho batez, ADOSTU DU:

- 1) Pellettikiko ikasturtea irailtik uztailera izango zehaztea.



2)Matrikulazioa ikasturtea hasita egiten den kasuetan, ordaindu beharreko kuota matrikulazioa egin den hilabetetik uztaila artekoa izanen da beti, eta gutxieneko matrikula 3 hilabetekoa izango da, ikasturteko azken 3 hilabetekoa hain zuzen, justifikatutako kasuak salbu.

3)Akordio honen berri ematea Pellettikiri.

8.-BURDINGURUTZEN ESTALKI BAT EGITEKO OBRA BAIMEN ESKAERA.

Burdingurutzen estalki bat egiteko eskaerari buruz udal arkitektuak txostena egin du.

Bertan adierazten da ikusi dela Burdingurutz baserriaren lurretan baimenik gabe eraiki direla hainbat eraikuntza, eta ondorioz, eraikuntza horien egoera erregulartasun batera eraman behar dela lehenengo (3 poligonoa 15, 153 eta 20 lursaila).

Ikusirik guzti hau, ADOSTU DUTE:

1)Burdingurutz baserriko nagusiari udal arkitektuaren txostenaren berri ematea eta legezatzate espedientea irekiko dela jakinaraztea.

9.-ARANTZAKO LURSAIL BATEAN OBRA HONDAKINAK LURPERATZEKO BAIMENA.

Ikusirik Arantzako Udalak ikusi duela 5 poligonoa 277 lursailean eraikuntza edota eraisketa hondakinak pilatzen ari direla.

Ikusirik udal arkitektuak egin duen txostena, lursaila lehen zegoen egoerara bueltatzeko informatuz ematen duena.

Osoko Bilkurak ADOSTU DU:

1)5. poligonoko 277 lursailaren jabeai udal arkitektuaren txostenaren berri ematea eta espedientea irekiko dela jakinaraztea.

10.-FRONTOIAN ERAGINDAKO KALTEAK.

Puntu hau hurrengo bileran aztertzeke utzi da.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bilera gozotik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 104. Ebazpenetik 125. ebazpenera.

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:50ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
David Iturria Almandoz jn.

